



FUNDACIÓN ERESBIL-ARCHIVO VASCO DE LA MÚSICA/ERESBIL-MUSIKAREN EUSKAL ARTXIBOA FUNDAZIOA

Sozietatearen izena

Fundación Eresbil-Archivo Vasco de la Música/Eresbil-Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioa

IFK

G75061200

Izaera

Fundazioa.

Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

Aurrekontu-araubidea

Gutxi gorabeherakoa.

Sorrera

1974ko ekainean, Errenteriako Andra-Mari Abesbatzak Euskal Ereslarien Bilduma-Archivo de Compositores Vascos erakundea eratu zuen, herri horretako Kaputxinoen komentuan.

1986ko maiatzaren 6an, erakunde hori Patronatu bihurtu zen [«Eresbil» Euskal Ereslarien Bilduma-Archivo de Compositores Vascos Patronatua sortzen duen maiatzaren 6ko, 110/1986 DEKRETUARI](#) jarraiki. 2002ko otsailaz geroztik, Eresbilek Niessen eraikinean dihardu lanean, Errenteriako Udalak egindako doako lagapenaren ondorioz.

2011ko martxoaren 15ean, "Fundación Eresbil-Archivo Vasco de la Música/Eresbil-Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioa" fundazio pribatua eratu zen, irabazi-asmorik gabe eta mugarik gabeko iraupenarekin. 2011ko abenduaren 27an, Eresbil Patronatuaren Zuzendaritza Batzordearen ohiko bilkuran, erakundea desegitea onartu zen. Hala, Batzorde likidatzaileak proposatu zuen eta aho batez ebatzi, 2012ko urtarrilaren 1ean, "Euskal Ereslarien Bilduma-Archivo de Compositores Vascos" Patronatuaren aktibo eta pasiboak "Eresbil Musikaren Euskal Artxiboa" Fundazioari eskualdatzea. Ebatzi zuen, halaber, fundazioari Eresbileko langileen transferentzia proposatzea.

Fundazioen Erregistroan inskribatu zen fundazioa [«Fundación Eresbil-Archivo Vasco de la Música / Eresbil-Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioa» Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeari buruzko Herrizaingo, Justizia, eta Herri Administrazio sailburuaren 2012ko irailaren 19ko AGINDUA](#) betez.

Sail-atxikipena

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.

EJSN

9106 Artxibo-jarduerak.

Fundazioaren xedea eta helburua

Euskal musika-ondarea, eta bereziki, euskal konpositoreen produkzioa ikertu, bildu, gorde eta hedatzea da fundazioaren helburua.

Sailkapena kontabilitate nazionalean


Sozietate ez-finantzarioak: pribatuak.

Fundazio-zuzkidura

168.085 €

Fundazio-zuzkiduraren osaera

EAEko Administrazio Orokorra	% 40
Gipuzkoako Foru Aldundia	% 40
Errenteriako Udala	% 20



Patronatua

Patronatua fundazioaren gobernu, administrazio eta ordezkartzarako organo gorena da, eta bere kontu izango ditu fundazioaren helburuak gauzatzeko beharrezkoak diren kudeaketaren gidaritza eta kontroleko eskumen guztiak. Honako hauek dira ekitaldiko urteko kontuak egin dituzten Patronatuko kideak:

José Ángel M ^a Muñoz Otaegi jauna	EAEko Administrazio Orokorra.
Clara Montero Telletxea andrea	EAEko Administrazio Orokorra.
Garazi Lopez de Etxezarreta Auzmendi andrea	Gipuzkoako Foru Aldundia.
Ikerne Badiola Garciandia andrea	Gipuzkoako Foru Aldundia.
Iruñe Balenciaga Arrese andrea	Errenteriako Udala.
Julen Mendoza Pérez jauna	Errenteriako Udala.
M ^a Carmen Garmendia Lasa andrea	Andra Mari Abesbatza.

Ekitaldiko urteko kontuak

[Ekitaldiko urteko kontu laburtuei eta auditoriari buruzko txostena.](#)

Ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	3.893.429 €
Ondare garbia	3.793.075 €
Salmentak eta merkataritza-jarduerako beste sarrera batzuk	0 €
Batez besteko langile-kopurua	11

Sozietatearen helbidea

Alfontso XI., 2 - 20100 Errenteria (Gipuzkoa).

Webgunea

www.eresbil.com